


# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 261. alea - 2021eko apirila



ZURI GOIKOETXEA

**“Mundua zalantzan jartzen duen  
zineman aritzeak erakartzen nau”**



**URDAITEGIA  
AITTOLA  
HARATEGIA**

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

**EUSKAL OKELA**  
KANTINA DE VINO DE CALIDAD DEL PAIS VASCO  
EUSKO LABEL



**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

**LENTZERIA**

**Azoka**

**MERTZERIA**

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



**ASKETA, S.L.**

**ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA**

**OFICINAS Y EXPOSICION:**  
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

**ALMACÉN:**  
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



**K21**  
KALITATEA  
Empresa Registrada Nº 27.051.049  
NIVEL 2



**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)



**Seven Clovers**  
Irish pub

943 191 295

**Calbeton**



**JATETXEA**

**Agustín  
Larrañaga Elorza**

**Denboraldiko platerra  
arrain eta barazkitan**

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



**50 URTE**  
**BURU - ZURI**  
Taberna

- Orartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan trazoak

Lersundi Kalea, 23  
Tel.: 943 191 034  
20820 DEBA



**SUKIA**

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)

**RAIKETAK S.L.**

**SAGARMIÑA**

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249  
Mug.: 618 214 282  
sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com



**atari**  
etxebizitza zerbitzu integrala

**SALMENTA, ALOKAIURAK, ABOKATUA**  
Arakistain plaza, 2 behea - DEBA  
Tel.: 943 19 22 63  
www.atarideba.com



**Bar LOREA**

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

**IZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



# AURKIBIDEA

6

## KOLABORAZIOA

Euskal Jolas  
Pilota Elkartea  
Herrikoak Berriketan  
atalean



8

## ALBISTEA

Artzabalgo hilerri  
berria ekainaren 30ean  
zabalduko dute  
okerrik ezean



9

## ALBISTEAK

Getari Etxegaraik  
zuzendutako "Fadoak  
entzuten zituen gizona"  
lana saritu dute



10

## ELKARRIZKETA

Zuri Goikoetxearekin  
zinemagintzaz  
solasean; orain  
artekoez eta gerokoez



16

## B. GAZTEA

Arrazakeriaren eta  
Xenofobiaren Aurkako  
Nazioarteko Egunari  
keinu eginez



## BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)

Elkartearen e-maila:

[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

## ARGITARATZAILEA

**Zuhatz**  
EUSKARA ELKARTEA

## LAGUNTZAILEAK



DEBARO UDALA



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Saibunordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

## Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkartea. Deba.

**Koordinatzailea:** Izaro Aulestiarte

**Erredakzioa:** Izaro Aulestiarte, Nagore Dorronsoro eta Alex Turrillas

**Hizkuntza ardura:** Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

**Azaleko irudia:** Erredakzioa

**Publizitatea:** Joseba Escudero, Terese Larrañaga eta Alex Turrillas

**Logotipoaren diseinua:** Iñaki Elosua

**Maketazioa:** Leire Rubio

**Tirada:** 1.400 ale

**Maiztasuna:** Hilabetekaria

**Lege gordailua:** SS-246-2009

**Inprimategia:** Euskalinpri

**ISSN** 2171-7656

## OHARRA:

*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

*gaitu  
maite  
dugun  
herri*  
**Zuhatz** euskara  
elkartea

2021. urtean Zuhatza Euskara Elkartea bere bazkide kopurua bikoizten ez badu desagertu egingo da.

**egin zaitez zuhatzakide!**  
[www.labur.eus/Zuhatza\\_EginBazkide](http://www.labur.eus/Zuhatza_EginBazkide)



*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) edo [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com).

## Debarren Eguna, Kolorez Blai euskal udalekuak... bagatoz herria koloreztatzera!



Udaberriko koloreekin batera, Kolore Anitz badator ekintza mordoz bete!

Laster hain maitatua dugun Debarren Eguna izango dugu. Adi sare sozialei, ekintza polit batekin etorriko baikara herria koloreztatzera.

Bestetik, Kolorez Blai udalekuen

berri ere eman nahi dizuegu. Baldintza, arau eta neurri pila bat bete beharko ditugun arren, horrek ez du gure koloretako ilusioekin amaituko. Gogotsu gaude gure txikiei udara zoragarri bat pasarazteko. Maiatzean izango da izen-ematea. Hala ere, izango duzue gure berri data iritsi baino lehen.

Eskerrak eman nahi dizkiogu

Udalari aurten ere udalekuak prestatzeko gugan jarri duen konfiantzarengatik, eta ahaztu gabe Zuhatza Euskara Elkarteari, beraiek gabe ezin baitute gure koloreek loratu.

Besterik gabe, animatu zaitzete gure ekintzetan parte hartzera! Laster arte kolorezale guztiok!

*Kolore Anitz Aisialdi Taldea*

## Kultur Elkartea letren habia bihurturik Liburuaren Egunaren inguruan

Aurtengoan, Liburuaren Egunaren bueltako egitaraua antolatzen burubelarri ibili gara Kultur Elkarteko kideok Luzaro Ikastetxea, Diego Sagredo fundazioa, Debako Ipuin Kontalariak eta Debako Udalarekin batera. Beraz, hemendik irakurzale guztiok animatu nahi zaituztegu datorren apirilaren 21etik 25era arte egingo diren ekital-

dietan parte hartzera.

Horiez gain, poesia, gustuko autoreen obrak, norberak sortutako idazlanak edo bestelako testuak irakurriz herritarrek grabatutako bideo laburrekin osatutako *bideo-collagea* ere zabalduko dugu sare sozialetatik apirilaren 23an. Bestalde, egun berean antzeko ariketa egiteko aukera izango dugu

Kultur Elkartean 19:00etan, kasu honetan zuzenean irakurri ahal izango dugu hain kuttun dugun testu edo poesia hori.

Zatoz, beraz, irakurle modura edo entzule modura bada ere, oraingoan ere Kultur Elkartean letren munduan murgiltzera.

*Debako Kultur Elkartea*

**herrikoak  
berriketan**

**atalean parte hartu nahi duzue?**  
**Talde edo elkarte bat zarete? Ezagutzera eman nahi duzue?**

**Oraintxe  
duzue aukera!**

**632 043 322**  
 **[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)**

## Seigarren agortze aldia



Duela 30 urte enarek gure balkoietan egiten zituzten habiak; joan eta etorri ibiltzen ziren. Zeruan batak bestearekin tope egiteko arriskuan ikusten genituen eta, azkenean, bira egin eta eltxoak harrapatzera. Horrela udaberri oro, halako batean etortzeari laga zioten arte.

Handik urte batzuetara, txolarreak joan ziren desagertzen. Alde guztietan joan dira txolarreak galtzen eta, bakarra ez den arren, arrunta da horren zergatia: janaria. Denetik jaten dute txolarreek, baina txolarre-kumeek intsektuak behar dituzte jateko eta horiek urritzen hasiak dira. Bai, bai, intsektu zirtzil eta ezdeus horiexek.

Aldaketa handiak astiro gertatzen dira eta ez dira antzematen errazak izaten. Hala ere, intsektuen galera eta enaren gutxitzea erraz ikus daitezkeen aldaketa handiak dira, abiadura handian baitoaz gertatzen. Intsektuen apokalipsiak, erleena tartean dela, hegazti, narrasti... eta baita guretzat ere, milioika tona janari galtzea dakar. Nazio Batuen aniztasunari buruzko azken adierazpenak dioenez, intsektu eta landareen desagertze azkar horrek milioi bat espezieren erabateko amaiera azkarra ekarriko du. Eta, seigarren agortze aldi hau horietako espezie baten, *homo sapiens*-aren, eraginez doa gertatzen.

Intsektuen bidezko polinizazioaren baitan dago gizakion janari beharrezkoenen % 70, eta horien gutxitzeak fruitu- eta barazki-uztaren % 16tik

% 40ra arteko murrizketa ekar lezake.

Gizakiok ezin dugu intsekturik gabe biziraun.

Lurra bere baliabide naturalen berreskuratze-ahalmenaren gaindi ustiatzen ari gara jakinaren gainean. Eta badakigu, horren ondorioz, gainerrako espezieak desagertzera bultzatzen ari garela. Badakigu, garbi, planeta honetako bizidun batek inoiz eragin duen sarraskirik handiena ari garela sustatzen. *Homo "sapiens" homo sarraskigile* edo *homo suizida* bilakatu da, eta bizimodua erabat aldatuz bakarrik ekidin dezakegu hau guztia.

**"Intsektuen bidezko polinizazioaren baitan dago gizakion janari beharrezkoenen % 70, eta horien gutxitzeak fruitu- eta barazki-uztaren % 16tik % 40ra arteko murrizketa ekar lezake"**

2030 Agendaren oinarri indartsuena gure espezie eta planetarentzat balio hiritarren munduko gizarte-itun berria da. Ingurumena eta bizidunak errespetatuko dituen ekonomia etikotari lotua ikusten du garapena gizarte

inklusiho horrek. Bere helburuak, honakoak: pobrezia eta gosearekin amaitzea; osasuna, ongizatea, kalitatezko hezkuntza eta lanbide egokia bermatzea; genero, ekonomia eta gizarte mailako desberdintasunak murriztea eta abar.

Horrez gain, barruan hartzen ditu herri guztiak, elkartasunean, osasun publikoari dagokionez. Izan ere, ez dago mugarik ur garbi eta saneamenduarentzat, energia ez kutsagarriarentzat, hiri eta komunitate iraunkorrentzat, klima aldaketaren kontrako borrokarentzat, edo lurreko eta itsasotako ekosistemen biziraupenarentzat.

Eta ikuspegi nagusi erabakigarri bat eransten dio: bakebidea eta justizia sustatu eta horren arabera jokatuiko duen erakunderik gabe ez dago garapenik.

Gaur egun, Garapenari buruzko Nazio Batuen Programaren arabera, euro bat baino gutxiagorekin bizi diren 870 hiritar dauzkagu, eta asko, janari, edateko ur, eta saneamendurik gabe bizi dira. Konponbidea? Justiziazko bakean; garapen iraunkor eta etikoan.

1.500 aktibista ingurumen-babesle erail zituzten Latinoamerikan 2002tik 2017ra (Global Witness GKE).

Uste duzue Greta Thunberg nerabe aktibista ospetsua Brasil, Mexiko, Kolonia edo Guatemalako balitz bizirik legokeela gaur egun?

*Jose Luis Albizu*



## HERRIKOAK BERRIKETAN

### EUSKAL JOLAS PILOTA ELKARTEA

Euskal Jolas Pilota Elkarte Debako pilota taldea da. Gaur egun lau jokamoldetan hartzen dugu parte; eskuz, gomazko paletaz, larruzko paletaz eta pala motzaz.

- Eskuz pilotari bakarra dabil: Mikel Caramanzana. Kadete mailan jokatzen du eta aurten Sorluzeko taldearekin lagatako jokalaria moduan ari da jokatzen. Momentu honetan 4 t'erdiko final aurrekoetan sartu da. Ea zorte pixka batekin txapela lortzen duen!

- Gipuzkoako gomazko paletako txapelketan bi bikote aritzen dira. Oraingoz ez dute 3. mailatik igotzerik lortu, baina urtetik urtera hobetuz doaz.

- Larruzko paletan bi bikote hartzen dute parte Gipuzkoako txapelketan. Bikoteetako bat lehenengo eta bigarren mailen artean ibiltzen da, gora eta behera; bestea, duela urte gutxi hasi zela kontuan hartuta, azkar finkatu da bigarren mailan.

- Pala motzean, paletan bezala, bi bikote ateratzen dira Gipuzkoako txapelketa jokatzera. Jokamolde hau dene-tatik zailena da eta oraindik ez dugu lehenengo mailara igotzerik lortu, nahiz eta aukerak izan.

Gure kirol urtea txapelketa ezberdinetan banatzen da:

- Irailean Gipuzkoako txapelketa jokatzen da eta gabonak arte luzatzen da. Txapelketa horretan lorturiko emaitzekin Euskal Herriko txapelketa jokatze-ko aukera lortu dezakezu. Horrela ez bada, federazioak antolatzen duen Udaberri izeneko txapelketa jokatu dezakezu.

- Txapelketa horiek klub-entean jokatzen dira, eta amaitutakoan, maiatzean, urteko txapelketa politena dator, Herri Artekoa.

Txapelketa hori jokamolde askotan jokatzen da eta herriko pilotari-ek bakarrik jokatu dezakete.

- Gipuzkoako Herri Arteko txapelketan hiru aldiz izan gara txapeldunorde eta Euskal Herrikoan behin. Ea laster txapela lortzerik daukagun!

- Eta horrela udarara heltzen gara. Udaran ez dago txapelketa ofizialik eta torneo pribatuak antolatzen dira.

#### **“Urte hauetan antolatu ditugun udako txapelketek oso harrera ona izan dute. Pilotariak gustura baino gusturago etortzen dira Debara”**

Deban, “Debako pala txapelketa” antolatzen dugu Aldats pilotalekua eraiki zenetik. Uztaileko azken astean edo abuztu hasieran jokatzen da eta bertan afizionatu mailako pilotari-ek hartzen dute parte.

Finalaren ondoren Innpala enpresako pilotari profesionalak jokatzen dute. Munduko palista onenak aritu dira Aldats pilotalekuan (Fusto, Gaubeka, Imanol, Ayerbe, Galan, Brefel...) izugarriko ikuskizunak eskainiz. Urte batean, horrenbesteko ikuskizuna ari ziren

ematen, 45 tantotara zen partida 55era jokatu baitzuten, jendearen txalo zaparrada artean. Izugarria!

Benetan polita izaten da, bai. Baina iaz pandemia zela eta gauza ezberdin bat probatzeko aukera sortu zen eta aprobetxatu egin genuen.

Debako Udalak, Fundibide Group eta Zubieder enpresek emandako laguntzari esker, Innpala enpresako palista profesionalen bi eguneko txapelketa bat eta gazte mailako elite partida bat antolatu genuen palako finalaren aurretik. Berrito ere dena ondo irten zen eta bai zaleak eta baita pilotari guztiak ere, oso-oso gustura gelditu ziren.

Egia esan, urte hauetan antolatu ditugun udako txapelketa hauek oso harrera ona izan dute. Pilotariak, bai afizionatuak eta baita profesionalak ere, gustura baino gusturago etortzen dira Debara. Jendeak frontoia bete egiten du. Eta batzuen pilotakadak direla eta beste-ent txaloak direla, izugarriko giroa eta espektakulua sortzen da.

Euskal Jolasen asmoa pilota sustatzea da eta gure ustez horretarako erarik onena partidak gurera ekartzea da, federazioak antolatutako txapelketetan parte hartuz eta udaran guk antolatuz.

Zer formatutan ez jakin arren, aurten ere pala txapelketa antolatuko dugu. Eta aurreko urteetan antolaturiko eskuzko partiden arrakasta ikusita, oraingoa ere zerbait polita egin nahi dugu gaur egungo gazte mailako pilotari onenekin.

Pilotari hauek jokatzen ikusteko aukera eman nahi diegu gazteei, kirol ikusgarri hau ezagutu eta praktikatzera anima daitezen.

## Ibon Aranberrik egin du aurtengo Musika Hamabostaldiaren kartela

Ibon Aranberri artistak (Itziar, 1969) diseinatu du 82. Musika Hamabostaldiaren, 2021ko abuztuan egingo den jaialdiaren, kartela. Abiapuntu artistikoa eskulturan izanagatik ere, Aranberrik formatu ugari lantzen ditu, besteak beste, argazkigintza, zinema eta elkarla-



nean egindako obrak.

Hamabostaldirako egin duen kartelean, Eibarko Ander Arroitauregi luthierraren (harizko instrumentuen konpontzailearen) txantiloak ageri dira, denak ere burdin hariz lotuak eta zintzilik.

Artista itziartarraren esanetan, Hamabostaldiko kartelaren enkarguak zailtasun bat ekarri zion hasiera-hasieratik, bere hizkuntza bisuala "ez baita hain erraz moldatzen kartel bat sortzeko lanera", baina erronka hori "produktiboa" izan dela erantsi du.

Ibon Aranberriren obrak arte garai-kidearen museo handietan daude ikusgai, hala nola Bilboko Guggenheimen, Gasteizko Artiumen, Madrilgo Reina Sofian eta Bartzelonako MACBAn.

Kartel hau eginda, Hamabostaldiaren irudi ofiziala sortu duten artisten zerrenda luzeari batu zaio Aranberri: Eduardo Chillida, Vicente Ameztoy, Jose Luis Zumeta, Cristina Iglesias, Esther Ferrer, Elena Odriozola, Juan Luis Goenaga...



GORKA AGIRREZABALA

### ...eta harro gaude!

"Inork etzidan esan, euskaldun izatia zein nekeza dan", dio Ruper Ordorikak abesti batean arrazoi osoz, nekeza bezain ederra den arren. Nola erabili, nola hitz egin, nola bizi... ikasiz joan gara ikastolan hasten garenetik, eta oraindik ere ikasten jarraitzen dugu.

Baina hainbeste eraso, epai eta oztopoz betetako euskaldunon bidea defendatzen erakutsi al digute inoiz? Bide horretan aurrera egiteak pertsonalki asko indartzen gaitu, altxor horren biziraupenaren parte sentiarazten gaituelako.

Erasotzaileek pentsatu al dute euskara lapurtu ezin daitekeen zerbait dela? Erabiliko dituzte legeak, debekuak, itxiko dituzte hedabideak, baina benetan altxor honen majikotasuna barruan daramagula da; inork ezin digula kendu. Nahi dugunean hitz egin, idatzi, abestu, antzertu dezakeguna.

Toni Cantóren euskararen kontrako erasoari erantzunez Oskar Matutek Madrileko Kongresuan esan zuen bezala, "hizkuntza bat daukanak mundu bat dauka, baina hizkuntza bat baino gehiago duenak hainbat mundu ditu".

Nor ez da inoiz harro sentitu atzeritar batek zure ama hizkuntza zoragarria dela adierazten dizunean edo dakien apurra zure aurrean plazaratzen duenean? Ni beti sentitu izan naiz harro egoera horietan, eta gurasoei eskertzen diet altxor zoragarri hau bizitza guztirako oparitu izana. Zuek ere eskertu izeaiezue!

Bukatzeko, Sarrionandiari hitzak lapurtuz, "Euskara da gure territorio libre bakarra"; beraz, zaindu eta margotu euskaraz munduko bazterrak.

Ni nora, euskara hara!

## Debarreneko Lanbide Heziketaren eskaintza modu birtualean aurkeztu dute

Pandemia dela eta aurtengo martxoan #ABIAN azoka presentziala gauzatu ezin izan denez, Debarreneko Lanbide Heziketako ikastetxeek, Debegesarekin elkarlanean, eskualdeko eskaintza modu birtualean aurkeztu dute.


Lanbide Heziketa ikasi duten eta egun Debarreneko enpresetan lanean diharduten ikasleen bideo laburrak ikusgai daude [www.debegesa.eus/abian](http://www.debegesa.eus/abian) webgunean, horrela, gazte eta gurasoek ikus dezaten ikasketa hauek zein lan mota egiteko aukera ematen duten.

Debarreneko Lanbide Heziketako zortzi ikastetxeek 37 heziketa ziklo ezberdin ikasteko aukera zabala eskaintzen dute, oinarrizko, erdi mailako eta goi mailako heziketa zikloetan.

Ikastetxeek arreta berezia ipini diote oraingoan, Debarrenean STEM

(Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematika diziplina akademikoak) bokazioak sustatzeko dagoen beharriari, eta bereziki, emakumezkoak bokazio horretara erakartzeko beharriari. Sustatzaileen hitzetan, "eskualdeko indarra industrian baitago eta langile teknikari kualifikatuak behar baititugu etorkizuna bermatzeko".

Informazio gehiago eskuragarri [www.debegesa.eus/abian](http://www.debegesa.eus/abian) estekan.



## Okerrik ezean ekainaren 30ean zabalduko da Artzabaleko hilerri berria

Martxoaren 4an egindako ez-ohiko osoko bilkuran hartutako konpromisoa betetz, Artzabaleko hilerriaren irekiera data zehaztu du Debako Udal Gobernuak. Ekainaren 30ean zabalduko dela iragarri du, hemendik eta ordura bitarte ezustekorik gertatzen ez bada.

Aipatutako bilkuran Debarren Ahotsak aurkeztutako mozioa onartu zen haien eta EAJ-PNVren aldeko botoekin eta EH Bilduren abstentzioarekin. Martxoaren 25ean egitekoa zen osoko bilkuran hilerriari lotutako hainbat gairen inguruan hartutako erabakia jakinarazteko konpromisoa hartu zuen Gobernuak.

Azkenean, osoko bilkura hori egin ez zenez, egun berean bozeramaile batzordea batzartu zen gaia lantzeko. Udalbatzako hiru alderdiek hala adostuta, bozeramaile batzordeari aurkeztu eta bertan onartu zuten Udal Gobernuak egindako proposamena. Hilerri zaharretik berrirako lekualdatzea ere izan zuten hizketagai eta adostu zuten urratsak zehazten joango direla. Debako Gobernuaren asmoa da herritarrek prozesuaren infor-



mazio osoa izan dezatela. Horregatik, beharrezko tramite administratiboak eginda, herritarrek partekatuko da gaiari lotutako informazio guztia, komunikazio-euskarri eta bitarteko desberdinak erabiliz; epeak, izango dituen ezaugarriak, hilerri zaharretik berrirako urratsa nola egingo den eta abar.

Hilerria zabaldu ahal izateko, erabilerarako erregelamendua onartuta egon behar da. Honen behin-behineko onarpena martxoaren 18an egin zen eta jendaurrean jarri legeak eskatzen duen gisan. Alegaziorik ez badago, behin betiko onarpena maiatzaren 15ean egongo da eta alegaziorik badago ekainaren 15ean. Hori hala, ekainaren 30a ikusi du Gobernuak zabaltzeko data egokia, esan bezala, ezustekorik ez badago.

### Abian da Mugiment kirol txartela

Hemendik aurrera Deba eta Itziarko bizilagunek Mugiment kirol txartela erabili ahal izango dute. Doakoa den kirol txartel bateratu honekin, udalerrri bakoitzeko abonatuak beste udalen kirol instalazioak erabiltzeko aukera izango du.

Ekimenaren helburua da kirola sustatzea eta herritarrei egindako kirol-eskaintza handitzea. Txartel birtuala denez, aplikazioa baino ez da instalatu behar, Google Play eta App Storen dago. Informazio gehiagorako: [www.deba.eus](http://www.deba.eus).

### Dragatze-lanak egiten ari dira portuan

Joan den apirilaren 6an hasi eta hilabetez arituko dira dragatze-lanak egiten Debako portuan, Eusko Jaurlaritzaren Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak Udalari jakinarazi dionez.

Azaldutakoaren arabera, lan horien helburua da Debako kaiaren sakonera berreskuratzea. Dragasub enpresari esleitu zaizkio dragatze- zein isurketa-lanak. Bestetik, Azti enpresak egingo du ingurumenaren egoeraren jarraipena.

## iritzia



**ITZIAR  
ARANA**

*Axu kla kla, axu kla kla...*, *Lingua vasconum lingua navarrorum...* kantuak entzun eta aisialdiko monitore/koordinatzaile garaira naramate; Gongonpaiara. Ostiral edo larunbatero prestatutako hainbeste ekintza, Gure Kaiko lokalean hasieran, Osiokoan azken urteetan. Oraindik gogoan dut *Oka* joko erraldoia margotzen nola lagundu ziguten Aitor Oñederra eta Goizane Aizpurua "gazteek", baita Emili Sukiak eta Itziar Gonzalezek ere.

Gongonpaia Eguna ere egin genuen, herriko haur eta gazteei zuzenduta. Taldean botea ipinita 2000 pezeta/12 € egin genion aurre lehenengo egun hari. Ilusioz betetako taldea ginen, baina diruz mehe.

Gongonpaiari esker Gipuzkoako hainbat herri txiki ezagutu genituen. Gure aurrekoei ikasi genien irteerak egitea zeinen aberasgarria zen: elkarbizitza,

talde-lana, euskara... lantzeko.

Mendea ere aldatu dugu, baina aisialdiak hezkuntza ez-formalean hezten jarraitzen du. Aldaketa sakonak gertatu badira ere, aisialdi taldeek beraien espazioari eutsi diote, Elizatik urrundu eta laiko eginez, euskara elkarrean babesean aurrera eginez. Aisialdiko espazioak umeez ondo pasatzeko lekuak izan arren, helduen begiradatik hori baino gehiago dira. Izan ere, aisialdian parte hartu duten haur asko begirale izateko gogoia izaten baitute; horregatik, jaso dutena bueltatzeko trebakuntza jasotzen dute.

Gutxien uste den lekuan ereiten dira haziak sarri. Udaberriro, loraldi desberdina ikusteko aukera izaten dugu: lore batzuk denbora luzez loratzen dira eta beste batzuk zimeldu, baina hori da aisialdiaren edertasuna; gazte eta kolore anitzekoa izatea.



## Getari Etxegaraik zuzendutako “Fadoak entzuten zituen gizona” antzezlanak jaso du XXI. Donostia Antzerki Saria



IGON MANCISIDOR

### 5G

Datuen kontsumo-igoerari aurre egiteko, badator kigu mugikorren bosgarren belaunaldia. Gauzen interneterako bultzada izango da, eta etengabeko konexioan diren milaka gailu konektatzea ahalbidetuko du. Makinak, tresna elektrikoak, etxeak, enpresak... konektatu daitezkeen edozer hiri-herrietara konektatuta.

4Ga baino hamar aldiz azkarragoa; atzerapen gutxiko eta erantzun azkarrereko sarea. Berlinen dagoen mediku batek Dubaiko operazio bat gidatu ahaliko du momentu errealean. Inteligentzia artifizialaren bultzada izango da (ibilgailu autonomo, dron eta robotikaren garapena, besteak beste).

Horretarako, ordea, konexio-puntu gehiago jarri beharko dira, milaka antena berri, eta gailu berriak erosi. Eta horrek irrati-uhinen erradiazio elektromagnetikoak gehitzea ekarriko du. Ez omen dago kaltegarriak direla baieztatzen duen ikerketarik; badauzkat nire dudak.

Gizartea, pertsonak, gailuak... dena “konektatuta” eta “kontrolpean”, konforme al gaude horrekin?

Etorkizunean eragin elektromagnetikorik gabeko eremuak izango dira estimazio gehien izango dutenak. Datuak “off” moduan jarri eta naturan murgiltzea izango dugu onena horretarako aukera dugun bakoitzean.

Aurrerapen teknologikoa beharrezkoa da, baina erabil dezagun sortzaile izateko eta ez kontsumo soilerako. Gainera, badakigu gizakia ze aldrebasa den boterea eta dirua lortu nahi ditueanean; ezagun ditugu espioitza, hackerak, big-dataren erabilera ankerra eta abar.

Kontuz eta adi ibili gero!

XXI. Donostia Antzerki Saria jaso duen “Fadoak entzuten zituen gizona” antzezlanaren Getari Etxegarai Turrillas zuzendari eta aktoreak zuzendu du, Txarli Andradek idatzi du, eta Iñigo Aranberri, Kepa Errasti eta Ane Gabarain ditu aktore-lanetan.

Road movie-en generoaren ildotik, *Road play* bat dela esan genezake, hau da, errepidean girotutako antzezlan bat. Taula gainean, Huelvako Ayamonte herrian antolatzen den fado lehiaketa amateur batera doan Anderren istorioa kontatzen da; autostopean hartzen duen Mario kamioizalarekin eta Masku izeneko pertsonaia misteriotsuarekin partekatutako duen bidaia bereziaren gorabeherak.

Epaimahaiaren ustez, 2020an Donostian helduentzat eskaini diren

antzezlanen artean onena izan da arrazoi askorengatik.

Bere esanetan, antzezlan horrek maskulinitatearen gaia oso ondo lantzen du eredu desberdinak erabiliz eta ohikoan emakumearekin lotzen den kantu mota bat, fadoa, abiapuntutzat hartuta. Horrez gain, epaimahaiak balio berezia eman dio kontakizunari, izan ere, originaltasun handiz garatzen da ohikoa ez den pertsonaia bat argumentutik kanpo sartuz. “Taula gainean oso emaitza erakargarria eta desberdina lortzen da, kutsu surrealista bat emanez”. Testuari dagokionez, “mamitsua, sakona eta aldi berean umoretsua” dela nabarmendu du eta hizkuntzaren aldetik, antzerkilengoaia oso egokitzat jotzen da eta euskara bera ere aberatsa da, maila altukoa.

## Iazko geldialdiaren ostean, zabalik da Animadeba 2021en parte hartzeko izen-ematea

Zabalik dago Animadeba 2021 Nazioarteko Animazio Zinemaldian izena emateko epea. Maiatzaren 4ra arte aurkeztu ahal izango dira lanak. Edozein genero, gai edo herrialdeko animaziozko film laburrek parte hartu ahal izango dute, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera sortutakoak badira eta orain arte sariketa honetan aurkeztu gabekoak. Piezek ez dute 20 minutu baino gehiago iraungo, kredituak barne.

COVID-19aren eraginez iazko edizioa bertan behera gelditu zenez, 2019az geroztik nazioarteko zinemaldi bihurturik datorkigun Animadeba

Animazio Zinemaldiak XIII. edizioa izango du aurtengoa.

Iaz, hala ere, zinemaldiaren jarraitzaileak erabateko agorraldian ez uzteko, saiakera berezia egin zuten Animadebako antolatzaileek, eta hila-bete batez, aurreko urteko edizioko film laburren sail ezberdinak irekian jarri zituzten zuzendari eta ekoizleek horretarako baimena eman ostean.

Aurtengoan, berriz, oraingoz behintzat, badirudi zinemaldiak aurrera egingo duela. Lehiaketaren oinarrien inguruko informazio gehiagorako: [www.animadeba.com](http://www.animadeba.com).



## “Plataformen dokumental-serieak modan jarrita ez-fikziozko zinemaren botere eraldatzailea ikusten hasiak gara”

**Duela gutxi Berlinale Talents mundu mailako topaketetarako hautatu dutelako jo dugu “Zuri Goikotxea” zinemagilearengana. Baina laster harritu gaitu 36 urteko debar honek egin duen ibilbideak, baita jasotako aitortza eta sariak ere. Ofizioan afizioak (zinema, musika eta literatura) pasioz harilkatzen dituelako sarituko dute agian bere artea, edo hain maite duen elkarlanak ikuspegi zabala ematen diolako, edo bere zinemarekin gizakiak gerturatzen dituelako.**

**Nondik, noiztik datorkizu zinemarekiko zaletasuna?**

Familian oso zinemazale gara, gainera genero desberdinak ditugu gustuko. Txikitatik ikusi ditut oso film desberdinak, mar-katu nautenak: *Conan el Bárbaro*, *Paris Texas*, *8 1/2*, *La naranja mecánica*, *Rebeca*, eta abar.

**Gidoilari, produktore, zuzendari... aritu zara. Zertan erosoago?**

Unibertsitatea bukatuta, Londresera joan eta konturatu nintzen ekoizpen-lanak erraz egiten nituela eta ekoiztetxe eta zinema-jaialdietan elkarlanean hasi nintzen.

Bueltan, 2010ean-edo, hainbat ekoiztetxetan nenbilela, Bilboko lagunekin kolektibo artistiko bat sortu genuen lehenengo lanak elkarrekin egiteko. Ezjakintasun-indarrarekin, idazten eta zuzentzen hasi nintzen. Luzemetrai bat, eta hainbat laburmetrai eta bideoklip idatzi genituen.

2010etik hona, gidoilari- eta ekoizlelanetan ibili naiz bereziki. Esango nuke zuzentzeari errespetoa hartu diodala, eta ikasten saiatu naiz beste zuzendariekin lanean. Bitartean, pieza laburrak, batez ere bideoarteak, sortu ditut. Lan bakoitzak (gidoilari, produktore, zuzendari) bere prozesu, denbora eta buru atala behar ditu. Elkar eli-

katzean, oso interesgarria da hirurak konbinatzea.

**Bideoarte esperimentalean eta ez-fikziozko zinemaren esparruan sailkatzen dituzte zure lanak. Azalduko diguzu zertan datzan?**

Film dokumentalak eta bideoarte esperimentalak elkar ukitzen dute; elkargune horretan egiten dut nik lan. Asko erakartzen nau mundua zalantzan jartzen duen zineman aritzeak eta, hortik abiatuta, ikuspuntu berriak proposatuz, elkarreragine-rako forma gizatiarragoak garatzeak.

Beti saiatzen gara edukietan eta kontatzeko moduan berritzaile izaten: aurretik kontatu gabeko istorioak bilatuz, eta edukiak osagai artistiko sendoz jantziz. Laburbilduz, ohiko zinematik kanpo egiten dut lan, zinema independentean.

**Doxa producciones ekoiztetxean zabilta 2016tik. Dokumentaletan dago espezializatuta.**

Desinformazioa medio, genero txikitzat hartua zen. Baina azkenaldian, Netflix, HBO, Amazon Prime... gisako plataformek *Wild wild country*, *Making a murderer* edo *The jinx* moduko dokumental-serieak

modan jarrita ez-fikziozko zinemaren botere eraldatzailea ikusten hasiak gara.

**Nola oroitzen duzu 163 egun: La Huelga de Bandas (2017) Larraitz Zuazo zuzendariaren filma? Produktzio-lanetan aritu zinen...**

163 egun ETB2n estreinatu zuten greba ezagunaren 50. urteurrenean. 1966ko Bizkaiko “Laminaciones de Bandas en Frío” enpresako 800 langileren frankismo garaiko grebarik luzeenaz dihardu. Estimatu berezia diot, Doxa Producciones-ekin ekoiztu eta idatzitako lehen film luzea delako.

**Gero etorri ziren, 2019an, 592 metroz goiti, Maddi Barber-en laburmetraiaren produktzio-lana, eta Meseta Juan Palaciosen filmarena; biak ere hainbat sari eta Goya sarietarako izendapenekin.**

592 metroz goiti-k Visions du Réel-en (Suitza) izan zuen nazioarteko estreinaldia; nazionala Donostiako Zinemaldian. Kimuak 2018 katalogoan egonik, Curtocircuiton ikusleen saria jaso zuen, besteak beste. 2019an, Goya sarietarako hautagai izan zen.

*Meseta*-ren kasuan, muntaketa-aholkulari ere aritu naiz. Nazioarteko estreinaldia CPH:DOX (Kopenhage) jaialdian izan zen,

eta aipamen berezia jaso zuen. Estatuan, Gijoneko jaialdian izan zuen estreinaldia. Pesaroko (Italia) zinemaldian epaimahai helduaren eta gaztearen sariak jaso zituen; Bartzelonan, L'Alternativa eta Mallordocseko sari nazionalak. Zinema-aretoetatik pasa ostean, 2021ean Goya sarietarako hautagai izan da.

### **Egun ere badakigu hainbat proiektutan zabiltzala buru-belarri, kontaguztu.**

2020an *Fantasia* idatzi eta ekoiztu dut, Aitor Merinoren (*Asier eta biok*) bigarren film luzea. Tabakalerako Ikusmira Berriak programan eta Mecas-en (Las Palmas-eko Zinemaldia) izan zen hautatua. Udan hasiko du ibilbidea zinema-jaialdietan.

Orain *Cabeza y corazón* (Ainhoa Andraka) filma muntatzen, idazten eta ekoizten nabil eta, aldi berean, *Itoiz Udako Sesioak* (Larraitx Zuazo) filma ekoizten eta idazten, Andraka eta Zuazorekin. Laida Lertxundiren *Working from home* labormertraia ekoizten ere ari naiz.

### **Itoiz Udako Sesioak Mutrikuko musika taldearen dokumentalak inguru honetan jakin-min berezia sortuko du...**

Lana oso berezia ari da izaten. Itoizek, 80ko hamarkadaren amaieran desegin arren, belaunaldi asko markatu baititu.

Helburua taldearen lehen urteak ezagutaraztea da, esentzia jaso eta ahalik eta zintzoen azaltzea beraien testuinguru eta istorioa. Laguntza handia ari gara jasotzen bai taldearengandik, bai beren gertukoengandik, bai zale guztiengandik. Ondo bidean, 2022ko Zinemaldian estreinatuko dugu filma.

### **Uzta oparoko urteak beraz, baina 2020tik osasun-krisian gaude murgildurik. Nola eragin dio horrek sektoreari?**

Kultur sektorea ere gogor jo du krisiak. Hala ere, itxialdian kulturaren garrantziaz ohartu garela uste dut. Kulturak (zinema, literatura, antzerkia, musika...) psikologikoki osasuntsu mantendu gaitu. Beste mundu bazuetarako leihoak ireki dizkigu gure etxean.

### **Orainsu arte Madrilen aritu zara; orain herrian. Aritu al daiteke lan honetan Deba bezalako herri txiki batetik?**

Honelako herriak aproposak dira pentsatu eta idazteko; espazio inspiratzaileak. Idatzi ondoren, bai, kanpora joan behar lankideengana; beraz, beharrezko dira herria eta hiria. Bestalde, filmaketa, merkatu edo zinemaldi baten ondoren atseden

hartzeko ere aproposa da Deba. Izugarri eskertzen dut lanaldi biziaren ostean familia eta betiko lagunekin egotea.

### **Erraza egin zaizu zinemagintzan zure burua ezagutzera ematea? Emakume izateak eraginik izan al du horretan?**

Ez da erraza izan, jende asko dago munduan gauza sinestezinak egiten. Epe luzeko lana da, neurri berean emozionatu eta obsesionatu egin behar zaitu. Maitasun-gorroto harreman sutsua da.

Emakume sortzaile gisa dugun mugarik handiena geure buruarenganako konfiantzarik eza da. Ez dagokigun zerbait egiten gabiltzan sentsazioa dugu, beti atzeko planoan egon beharko bagenu bezala. Kultur ondarearen pisuari eta heteropatriarkatuari aurre egin behar izaten diogu. Baina bide onetik goaz, ahaldunduz, gure proposamen artistikoak gero eta ausartago erakutsiz.

## **“Zinemagintzaren bidea epe luzeko lana da, neurri berean emozionatu eta obsesionatu egin behar zaitu. Maitasun-gorroto harreman sutsua da”**

### **Karrera bukatu berri duen eta zinemagintzan aritu nahi duen gazteari zer aholkatuko zenioke?**

Ez izateko beldurrik ideiak praktikan jartzeko (zineman ere saio eta hutsegiteaz ikasten da); inspiratzen duen kultura kontsumitzeko; konfiantzazko taldea sortzen saiatzeko (zinema talde-lana da); eta umila

izateko, beti ikasten jarrai dezan.

### **Animadeba Animazio Zinemaldiak XIII. edizioa izango du aurtengoa. 2019tik nazioarteko zinemaldi. Zer garrantzi dauka zinemaldi honek?**

2018 eta 2019an ibili naiz ekoizpen-lanetan, baina aurten martxan ditudan filmetan jarri behar dut arreta eta denbora.

Herriko profesionalak antolatutako jaialdia da, lanpostuak sortzen ditu eta programazioak (arriku eta maila altukoa) inguruko herrietako jendea erakartzen du. Oso ekitaldi garrantzitsua da benetan.

### **Pasa berri da Berlinale Talents, zinemagintzako talentu berriei zuzendutako topaketa. Euskal Herritik Lur Olaizola eta zu zeu aukeratu zaituztete mundu mailako 3000 eskaera baino gehiagoren artean. Nolakoa izan da esperientzia?**

Oso positiboa, inflexio-puntu bat. Komunitate bateko kide sentitu naiz. Zalantza eta esperientziak partekatu eta egoera berean jende asko dagoela ikusi dut. Lan egiteko hainbat modu ezagutzeaz gain, ikasi dut mundu globalizatu honetan ez dagoela elkarlanean aritzeko mugarik. Gainera, profesional handien (Apichatpong, Céline Sciamma...) hitzaldiak eta beren esperientziak entzun ditut.

### **Iraganaz jardun gara, baina zein dira Zuri Goikoetxearen asmoak?**

Berlinale Talents esperientziak berretsi egin dit muga geografiko eta mentalak zabaltzen jarraitu nahi dudala, eta hunkitzen nauten proiektuetan lanean. Horrela, fikziozko gidoi berri bat idazten hasia naiz eta beste bi luzemetrai ekoizteko aukera ere aztertzen ari gara.



Deba-Itziar

# BIRA



## MARTXOKO BIRA | SARIDUNAK



Kotoizko manta  
Antton Aizpurua

Kotoizko 2 kuxin handi  
Jose Luis Mugarza



Kotoizko kuxina  
Julia Ron Soto  
Mari Jose Aldalur

Kotoizko otarrea  
Jon Esnaola  
Jose Luis Arriola  
Leire Olazabal  
Mari Seara  
Angel Mari Galindez

\*Produktuak 2021/05/15 baino lehen jaso beharko dira, turismo bulegoan

## APIRILEKO BIRA:



1. Zein da Debako Odol Emaileen taldeko arduraduna?



2. Non dago Debako udal-armarririk zaharrena?

A) Udaletxean  
B) Agirre jauregian  
D) Arteaga dorrean  
E) Santa Maria elizan



3. 2020ko abenduan zenbat urte bete dira Burgosko Prozesua izan zela?



4. Zein baserritan jaio zen Jose Antonio Sorazu Unanue bertsolaria?

A) Txapasta D) Zubeltzu Zahar  
B) Olloki Goikoa E) Murgizabal



5. Zein da Itziarko Ama Birjinaren bitxien lapurretaz ari den kondaira?



6. Zein urtetan eraiki zen hondartzako Kasinoaren eraikin enblematikoa?

A) 1978 D) 1932  
B) 1888 E) 1943

**PARTE HARTZEKO:**

[www.labur.eus/BIRA\\_apirila](http://www.labur.eus/BIRA_apirila)

Erantzun gehien asmatzen dituztenen artean

Parte hartzaile guztien artean

Beliosoro-Bekoa baserriko  
**60 euroan baloratutako**  
**hiru haragi sorta**  
banatuko dira

Beliosoro-Bekoa baserriko  
**60 euroan baloratutako**  
**bi haragi sorta**  
banatuko dira

Erantzunak bidaltzeko azken eguna: **maiatzaren 7a**

Irabazleen izenak maiatzeko *Berriketan*-en argitaratuko dira. **Animatu!**

## Jon Osa: "Estatu Batuetan igeri egiteko afizio handiagoa dago hemen baino, gainera, munduko igerilari azkarrenak bertakoak dira"

**Jon Osa Azpiatzuk iazko ekainean *Berriketan*-eko *Debarrak Munduan* atalean hartu zuen parte. Horrela jakin genuen Floridan (AEB) jaio arren, ama debarra izanik, orain dela hamaika urte Debara etorri zela bizitzera. Hala ere, bere ametsa Estatu Batuetan ikasi eta igeri egitea zen, horregatik, St. Louiseko Unibertsitateak ateratako beka bati esker 2019an bertara joan zen. Orain, Osaren berriak iritsi zaizkigu berriz, 200 yardako bizkar estiloan igeriketako txapelketa nazionalen parte hartzeko sailkatu baita. Gainera, martxoko bigarren hamabostaldia Deban pasa duela aprobetxatuz, berarekin egon gara.**



Martxoaren 17tik 20ra ospatu zen igeriketako txapelketa nazionala Birminghamen (Alabama). Bertan parte hartu zenuen 200 yarda bizkar estiloan, 50 estilo librean, 100 tximeleta estiloan, eta 100 bizkar estiloan. Zer moduz joan zen?

Oso ondo, espero nuena baino hobeto. Lau lehiaketetan denborak hobetzea lortu nuen eta ahalik eta postu onena lortzen saiatu nintzen. Denboraldiari amaiera ona eman niola esango nuke.

**Ikusten dugu estilo denetan zabil-tzala fin, baina zein diziplinatan aritzen zara erosoen?**

Gehien gustatzen zaidana bizkar estiloa da eta nire lehiaketarik hoberena 200 yardak dira. Baina orokorrean estilo denetan egiten dut igeri eta oraingoz oso pozik nago.

**Iaz ere ez zenuen urte txarra izan. Talde mailan 200 yarda librean**

**"Honorable Mention All-America" ohorezko izendapena jaso zenuen. Badirudi ondo egokitu zinela beraz hara.**

Hasieran, gogorra egin zitzaidan gurasoengandik urruntzea, baina gutxika-gutxika hango bizimodura egokitu nintzen. Gainera, unibertsitateko taldean entrenatzaileak eta taldekideak oso jatorrak dira, beraiei esker nire bizimodua askoz erosoagoa da.

**Eibarko Igerixan igeriketa taldearen parte izan zinen Deban bizi izan zinen aldian. Alderik sumatu duzu igeriketa mailari dagokionez bi herrialdeen artean?**

Bai, hango maila oso altua da. Estatu Batuetan igeri egiteko afizio handiagoa dago hemen baino, gainera, munduko igerilari azkarrenak bertakoak dira.

**Zenbat denbora eskaintzen diozu egunean, modu batean edo bestean,**

**igeriketari?**

Gutxi gorabehera, hiruzpalau ordu eskaintzen dizkiot igeriketari egunean. Horrez gain, indar-entrenamenduak izaten ditut gimnasioan; azken horiei ordu edo ordu-erdi inguru eskaintzen diet.

**Nola baloratzen duzu orain arte igeriketaren munduan egindako ibilbidea?**

Aurrerapen handia egin dut hasi nintzenetik. Igeriketagatik izango ez balitz, ez nintzateke Estatu Batuetan ikasten egongo. Aukera honi esker akademikoki eta profesionalki eboluzionatu dut.

**Nola irudikatzen duzu zure ametsetako etorkizuna?**

Enpresa batean ikusten dut nire burua. Aurtengo udan praktika batzuk izango ditut enpresa batean. Finantzen munduak asko erakartzen nau eta horren inguruko zer edo zertan lan egitea gustatuko litzaidake.





## Errigorako produktuen dastaketak harrera beroa izan du

Aforo mugatua izaki, hamabost bat lagun bildu ziren Bordatxo eta Zuhatzaren arteko elkarlanean martxoaren 18an egindako Errigorako produktuen dastaketan. Bordatxoko Haika Aizpuruak azalpen ugari eman zituen produktuen berezitasun eta erabileren inguruan, eta parte hartu zutenek zer eskara egin erabakitzeko aukera ona izan zuten bertan. Hori horrela, lerro hauen bitartez Zuhatza Euskara Elkarteak eskerrak eman nahi dizkio Aizpuruari kanpainarekin bat egiteko bere prestutasunarengatik; produktuak prestatu eta haien inguruko azalpenak eman zituen, ekimenerako bere jabetxea eskaintzeaz gain.

Bertan, Errigorak eskaintzen dituen Nafarroa hegoaldeko ekoizleen hainbat produktu dastatu eta beren arteko alde sumatzeko aukera izan zuten bertaratu zirenek. Besteak beste, lau olio mota bereizteko aukera izan zuten, zainzuriak, bi piper gorri eta bi orburu mota, eta, azkenik, bi pasta klase ere dastatu ahal izan zituzten olioaz eta tomatez lagundurik.

### Produktuak maiatzaren 4an jaso beharko dira

Behin produktuak eskatzeko epea bukatutik, orain beroriek jasotzeko aukera izango dute zuhatzakideek maiatzaren 4an Aldats pilotalekuko biltegian (10:00-13:00/18:00-20:00).



### Zuhatzaren material berria salgai

Material berriarekin dator Zuhatza Euskara Elkarteak. "Zaindu maite duzun hori" lema daramaten kamiseta urdinak (12€), poltsa (8€) eta maskarak (6€) atera ditu oraingoan.

Zuhatzako bazkideek prezio berezia izango dute kamisetetan (10€) edo produktu sorta hartzerakoan (20€). Erreserbak: 688840308 telefonora deituta, apirilaren 28ra arte.

MARTXOKO  
**ZOZKETA**  
IRABAZLEA:  
**MILAGROS LAZKANO**

**SAGARMIÑA TXAKOLINA**  
3 BOTILA

**ALBOKA**  
FOLK TALDEAREN  
"LAU ANAIAK" DISKOA

Zuhatza mu. deba euskara elkarte

APIRILEKO  
**ZOZKETA**  
ZUHATZAKO BAZKIDEEN ARTEAN

**ERRIGORAKO**  
PRODUKTU SORTA

ZOZKETA EGUNA:  
APIRILAK 30, OSTIRALA  
FACEBOOK BIDEZ

Zuhatza mu. deba euskara elkarte

# EUSKERAZ BAGERA!

## ZERGATIK ZARA ZUHATZA EUSKARA ELKARTEKO BAZKIDE?



### JUAN MARI GURRUTXAGA

57 urte

Lehenik eta behin, Zuhatza Euskara Elkarteak argitaratzen duen *Berriketan* aldizkaria gure hizkuntzan sortua delako; euskaldunok ez badugu euskara bultzatzen nork egingo du bada!

Bestetik, herriko berriak edota iritziak herritarren eskutik kontatuak direlako, gehienak boluntario bezala. Beraz, herrikoa den informazioa herrikoek idatzia eta kontatua. Euskaldunak gara eta harro gaude.

### ALAITZ ESCUDERO

24 urte

Pandemia ikasgai jasotakotik hausnarketa kolektibo bat egitea tokatzen zaigu: zer behar dugu bizirauteko? (ez termino materialei dagokienez soilik, ongizateari dagokionez baizik). Zuhatza Euskara Elkarteak herritarroi eskaintzen diguna, adibidez. Eta baloratu eta babestu behar genuke dirauen bitartean, galdutakoan alperrik baita. Kontzientziaz, arrazionaltasunetik eta alaitasunetik eraldatzen ikasiko dugu halako batean, gertakari dramatikoetatik soilik izan beharrean. Azken finean, euskaltasunetik gure Deba aberasten jarraitzeko giltza dugulako animatzen zaituztet bazkide egitera!



### PAKO SALEGI

77 urte



Gaztaroan, eskolan eta kalean erdaraz egin arren, etxean euskara erabili izan dugu beti. Trantsizio-politika garaian gau eskolan ibili nintzen eta irakasle hunkigarria izan nuen: Tene Mujika. Beranduago, Euskal Herrian Euskaraz mugimenduaren sorreran partaide izan nintzen. Herrian, gure gaztaroan baino gehiago hitz egin eta normalizazio bidean egon arren, oraindik tresna guztiak behar ditugu euskara gizartean txertatzeko. Garbi dago erabilpenarekin arazoa daukagula. Horregatik, lagungarri liteke Zuhatzako bazkide egitea eta, noski, egunerokoan euskara erabiltzea. *Berriketan* ere hura mundura plazaratzeko tresna ezin hobea da, etxe askotara iristen baita.

### NEREA LAZKANO

45 urte

Euskara nire ama hizkuntza denez, besteak beste *Berriketan* aldizkarian herriko berriak eta herritarren iritziak euskaraz irakurri edota idatzi ahal izatea funtsezkoa dela iruditzen zaidalako naiz Zuhatzako bazkide. Gainera, Korrikaren antolakuntza edota Euskal Jaia ere ez lirakeke posible izango Zuhatza elkarte ez balego, beraz, guztiz beharrezkoa iruditzen zait bertatik egiten den lana, eta ahal dudan heinean laguntzen jarraituko dut.



## ARRAZAKERIAREN ETA XENOFIARIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Martxoaren 21ean Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna ospatu zen mundu guztian. Berriketan Gaztea osatzen dugunok keinu egin nahi izan diogu egun horrek biltzen duen aldarriari eta oraingoan bi orriak oso-osorik hainbat giza taldek bizi duten injustizia eta berdintasunik eza salatzeke erabili nahi izan ditugu. Lehenengo orri honetan, gaiaren inguruko hausnarketa sakona dakargu; bigarreanean, berriz, irakurleon abilezia eta sentsibilitatea proban jarri nahi izan ditugu. Horretarako, alde batetik irudi batzuk jarri ditugu, eta bestetik irudi horiei dagozkien azalpenak; irakurleari dagokio orain bi horiek, irudi eta azalpen, egoki lotzea. Bigarren jolas arin horrekin, bide batez, arrazakeriaz hausnarketa egitera gonbidatzen zaituztegu.

IRITZIA

### GEHIAGO ZARELA SENTITZEN AL DUZU?

Arrazismoa deritzogu arrazaren arabera norbait gutxiesteari; jarrerekin, komentarioekin eta baita norberaren pentsamenduekin ere. XXI. mendean gaude, konkretuki 2021. urtean, eta oraindik uste baino jende gehiagok ditu jarrera arrazistak. Hala ere, okerrera da guk geuk onartu eta normalizatzen ditugula.

Arrazismoa presente dago gure eguneroko jarduera askotan, autobusean jendea ez da pertsona arrazializatuen ondoan eseritzen. Baina zer zerikusit edukiko du eserleku batek? Kanean urrunduz egiten dira. Baina zer egingo dizutela uste duzu? Gutxietsi egi-

ten dituzte. Baina inor ez da inor baino ez gehiago ez gutxiago! Lana kentzen digutela esaten dute, baina denok dugu lan egin eta gutxieneko soldata jasotzeko eskubidea! Begirakune txarra botatzen diete. Horrekin zure barruko amorrua askatuko al duzu?

Jarrera hauek ez dira etorkinei zuzenduak bakarrik, baita bizi osoan hemen bizi diren baina kanpotartzat hartzen ditugun pertsonen ere.

Egia esan, gizarteak egin du aurrerapausoa, orain dela 50 urteko jarrera eta gaur egungoa ez baitira berdinak.



Hala ere, aurrerapausoak egin ditugun arren, badaude zuzendu beharreko jarrera asko eta asko, ez baitago pertsonak beraien itxuragatik baztertzeko inolako arrazoirik.



#### Prensa tailerra 2020-2021

Maren Aramburu, Ekaitz Aperribai, Ainhoa Loidi, Maddi Txurruka, Adur Aramburu, Unai Portero, Enara Oruesagasti, Julene Perez, Jon Etxeberrria, Malen Formariz, Oier Becerra, Oinatz Urbietta, Josu Corrius, Xabi Arakistain eta Sara Osa.

Koordinatzailea: Ainhoa Urkiola

laguntzailea:



babesleak:





ZEIN AZALPEN DAGOKIO IRUDI BAKOITZARI?



1

G

Emakume hegoafrikar bat bi haurrekin korrika doa, izututa, matxinada batean (Hegoafrika, 1981) bere atzean jendetza ageri dela.



5

E

Lagunak, senide eta jarraitzaileak Hegoafrikako Ikasleen Kongresuko kide baten hiletan (poliziak fusilatua).



2

H

Txurien eremua. Txuriak gainerako pertsonengandik bananduta egotea nahi dute hondartza honetan. Lurmutur Hiritik gertu kokatzen da leku hau.



6

F

Soweto-n hiru poliziak Apartheid-aren aurkako manifestazioa disolbatzeko pertsonetako bat arrastaka daramate. Manifestariak jipoituz sakabanatu zituzten. Gizon honi, beste askori bezala, bere adierazpen-askatasuna ukatu zioten.



3

B

Hegoafrikako Apartheid-aren agintaldian auzo beltz bat eta zuri bat banatzen dituen alanbrezko hesi bat legez kanpo gurutzatzen ari diren haurrak (1963ko argazkia).



7

I

1970 inguruan, hegoafrikarrak euren etxeen aurrean bildu ziren. Gobernuaren esanetan, beltz asko euren etxeen jabeak dia, baina errealtatean ez dira jabeak eta jabetzak eta lurra izatea debekatzen zaie.



4

D

1976ko ekainaren 16an, Soweto-ko (Hegoafrika) bigarren hezkuntzako ikasleek hezkuntza hobe baten aldeko protesta egin zuten. Poliziak gas negar-eragileak eta balak jaurti zituen manifestatzen ari zen jendetzaren aurka, pertsona errugabeak hilez. "Sowetoko altxamendua" deritzo honi, 1960ko hamarkadaz geroztik poliziaren eta manifestarien artean izandako istilurik odoltsuena.



8

A

Eskubideen alde borrokatzen ari da jende hau. Arrazismoaren aurka eta pertsona guztion berdintasunaren alde dihardute, denok berdinak baikara! Haur zein helduak azaltzen dira, sentimendu latz eta gogorrek adierazten dituzte.

\*ERANTZUNAK: 1-F, 2-D, 3-I, 4-H, 5-A, 6-G, 7-B, 8-E

**APIRILAK 19, ASTELEHENA**

-19:00. **Pentsiodunen elkarretaratzea** pentsio duinen alde, Foruen plazan.

**APIRILAK 21, ASTEAZKENA**

-19:00. Eneko Aizpuruak Tene Mujika bekarrekin sortutako **"Bidasoan gora" liburuaren aurkezpena**, Kultur Elkartearen.

**APIRILAK 22, OSTEGUNA**

-19:00. "Deba ehun hitzetan" lehiaketaren **sari banaketa**, Kultur Elkartearen.

**APIRILAK 23, OSTIRALA**

-19:00. **Irakurketa partekatua** Kultur Elkartearen.

-19:00. Jon Alonsok Tene Mujika bekarrekin sortutako **"Naparra. Kasu irekia" liburuaren aurkezpena**, Burugorri aretoan (Itziar).

**APIRILAK 24, LARUNBATA**

-**Liburu azoka**, Kultur Elkartearen plazan (12:00-14:00 / 17:00-20:00).

-19:00. Rafa Bravoren **"La sombra del aire" liburuaren aurkezpena** (Iparragirre saria),

Kultur Elkartearen.

**APIRILAK 25, IGANDEA**

-10:00. **Bisita gidatua**: "Geoparkeko itsas hondak eta flysch zaharrena". Informazio gehiagorako: [www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus).

-Umeen ipuin lehiaketaren **sari banaketa Debako Kontalariekin**, Luzaro ikastetxekeo karpian (12:00etan HH5, 13:00etan LH1-LH2, 17:00etan LH3-LH4, eta 18:00etan LH5-LH6).

**APIRILAK 28, ASTEAZKENA**

-19:00. Ostolaza Udal Liburutegiko **Irakurketa Kluba**: "Dendaostekoak". Uxue Alberdi (Susa, 2020). Dinamizatzailea: Asier Serrano. Informazio gehiagorako: [ostolaza@deba.eus](mailto:ostolaza@deba.eus) edo 943 19 25 60.



**MAIATZAK 16, IGANDEA**

-Debarren Eguna (egitarau berezia antolatuko da asteburu osoan zehar. Udaleko Kultura Batzordeak datozen egunotan iragarriko ditu ekimenok).

**Animadeba 2021**

-Zabalik dago Animadeba 2021 Nazioarteko Animazio Zinemaldian izena emateko epea. Maiatzaren 4ra arte aurkeztu ahal izango dira lanak. Informazio gehiagorako: [www.animadeba.com](http://www.animadeba.com).

**Haurrentzako jolasak Kolore Anitzekin**

-Kolore Anitz Zuhatza Euskara Elkartearen baitako aisialdi taldeak haurrentzako "Begirale ezkutuen bila" jolasa antolatu du Debarren Egunaren asteburu atarirako. Maiatzaren 14an, ostirala, arratsalde izango da jolasa eta udaletxe azpitik abiatuko da. Talde txikietan banaturik arituko dira haurrak jolasean eta talde bakoitzean guraso bat izango da gutxienez.

**Odola emateko deialdia**

-Maiatzaren 14an (ostirala) odola emateko saio berri bat egingo da Luzaro ikastetxean, 17:00etan. Aste horretan bertan 623 328 408 zenbakira deituta hartu beharko da txanda (16:30etik 20:30era) edo WhatsApp-a bidaliz.

**ZAINTZAKO BOTIKA**  
Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **apirilak 23, 24, 25.**  
**maiatzak 3, 4, 5, 6.**

Burgoa Zuazo: **apirilak 19, 20, 21, 22.**  
**maiatzak 7, 8, 9.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

**DEBAKO BOTIKAK**

**ZALDUEGI: 669 262 201**  
**BURGOA ZUAZO: 667 338 890**

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: maiatzak 1 eta 8  
BURGOA ZUAZO: apirilak 17 eta 24

9:30 - 13:00

G

**JOXEAN GALDONA AIZPURUA**

HORTZ-SENDAGILEA  
Odontologia orokorra,  
kirurgiak eta implantateak

Hondartza Kalea, 20 - behea  
Tel.: 943 192 819  
20820 Deba

Jarri zure publizitatea  
Berriketan aldizkarian!

943 191 383

berriketan@zuhatza.com

LAMARIANO

Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba  
943 19 12 52

ZURE ENTZUMENA  
ZAINTZEN

Ostolaza, 7  
20820 DEBA  
Tel: 943192192

RPS:183/12

LIZ-ZK.: 3

**TaxiAlain Deba**

WiFi

**636 135 008**  
alain@taxideba.eus

[www.taxideba.eus](http://www.taxideba.eus)

MARIJE CASTRO IRIBARREN



MASAJISTA

- Masaje terapeutikoak
- Kirol masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Txinako medikuntza tradizionala (TUI NA)

**28 URTEKO ESPERIENTZIA**

**DEBA**

Tel.: 677 557 615

ITXAS GAIN

Taberna

ITXAS GAIN

Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA

**IGARZA**

TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA

Tel.: 943 191 197

**Argazkilaria**  
Ander Salegi



(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: [andersalegi@gmail.com](mailto:andersalegi@gmail.com)

Tf: 685 703 843

**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel./faxa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
[mikeliturgintza@euskalnet.net](mailto:mikeliturgintza@euskalnet.net)  
[www.mikeliturgintza.com](http://www.mikeliturgintza.com)

**ieraenea**  
ekodenda

"maito ditut nire/guro basterrak"

Lersundi kalea 6r- 20820 DEBA  
Telf:943 53 95 20- E-mail [ieraenea@gmail.com](mailto:ieraenea@gmail.com)

**k**

**kutxabank**

**A**

**D**

**ASESORIA DEBA**

Kontabilitatea- Nominak -  
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127  
Fax: 943 192 482

[asesoriadeba@asesoriadeba.com](mailto:asesoriadeba@asesoriadeba.com)  
[www.asesoriadeba.com](http://www.asesoriadeba.com)

Hondartza 2, behea  
20820- DEBA (GIPUZKOA)

**ALBIZU**

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**ARKATZA**

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

**AUKERA**  
INMOBILIARIA

[www.aukera-inmobiliaria.com](http://www.aukera-inmobiliaria.com)  
Aukerarik onena!

943 12 13 95

**API** 447

**urlo**

SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

**API**  
Nº 379

Higiezinaren Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezinaren Agentzia  
Komunitateen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
[urlo@urlosi.net](mailto:urlo@urlosi.net)

**s@soiiko**


ekodenda,  
dietetika,  
belardenda

ZERBITZUAK:

- \* Fisioterapia: teknarterapia (INDIVA)-drenaje linfáticoak -lesioak -...
- \* Gimnasia hipopresiboak
- \* Dietista
- \* Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 [s@soiiko@hotmail.com](mailto:s@soiiko@hotmail.com)

**GENOVEVA**  
Arraindegia



Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818

2021-22 ikasturterako Batxilergorako Onarpena  
Apirilaren 12tik 23ra (on-line zein ikastetxean)

## BATXILERGOA (BH)

GIZARTE ZIENTZIAK  
HUMANITATEAK

OSASUN ZIENTZIAK  
ZIENTZIAK ETA TEKNIKA

ARTISTIKO MUSIKALA

Giza eta  
Gizarte  
Zientziak

Zientziak

Artea

